



EBAZPENA, 2021eko abenduaren 10ekoa, Langileriaren Kudeaketa zuzendariarena. Erabaki honen bidez aditzera ematen da noiz egingo den tokiz aldatzeko lehiaketan parte hartu duten funtzionarioek alegatutako merezimenduak baloratuko dituzten Balorazio Batzordeetako kideen zozketa. Ondoko kidegoetako funtzionarioak dira: Bigarren Hezkuntzako, Hizkuntza-Eskola Ofizialetako, Musika eta Arte Eszenikoko, Arte Plastiko eta Diseinuko katedradun eta irakasleen kidegoetako funtzionarioak bai eta Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoko funtzionarioak ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren menpe daudenak.

Hezkuntza sailburuak 2021eko azaroaren 5ean emandako Aginduaren bidez egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari unibertsitatekoak ez diren irakasleen kidegoetako langile funtzionarioen arteko estatu mailako lekualdatze-lehiaketarako deialdia (EHAA, 2021ko azaroaren 12a). Agindu horren hogeita hirugarren oinarriarekin bat etorritik ondokoa.

ERABAKI DUT:

Lehenengoa.- 2021eko azaroaren 5ko Aginduak araututako lekualdatze-lehiaketan parte hartzen dutenek (Maisu-maistren kidegokoak izan ezik) alegatutako merezimenduak -I. Eranskinetako puntuazio-baremoak 5.1, 5.2, 6.1, 6.2 eta 6.3 atalei dagokienez- ebaluatzeko Batzordeetako partaideen zozketa 2021eko abenduaren 14an egingo dela, eguerdiko 10:00etan, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren Langileak Kudeatzeko Zuzendaritzan (Donostia-San Sebastian, 1, Lakua II. eraikina, 3. solairuan Vitoria-Gasteiz).

Bigarrena.- Hezkuntza Sailaren web orrian edo <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/hezkuntza-saila> edo <https://hezigunea.euskadi.eus>, emango da argitara aipatutako zozketaren emaitza aditzera ematen duen Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren ebazpena.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko abenduaren 10a.

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

BLANCA MARIA GUERRERO OCEJO